



---

## Konputagailuen Arkitektura I

---

### Memoria-sistema 4: Memoria-sistemaren ezaugarriak ondorioztatzea

Memoria-sistema batean alegiazko memoria 2 megabytekoa da, memoria nagusia 512 kilobytekoa da eta 8 moduluz osatuta dago. Helbideratze unitatea bytea da eta hitzak 2 bytekoak dira.

- a) 3246 helbide logikoa 1 orri logikoan dago eta, itzulpen-prozesua egin ondoren, 5294 helbide fisikoa dagokio (helbide hau 2 orri fisikoan dago). Zein da orriaren tamaina memoria-sistema honetan? Zenbat orri logiko egon daitezke gehienez? Zenbat orri fisiko izan ditzake memoria nagusiak?
- b) 5122 helbide fisikoa memoria nagusiko 1 moduluan kokatuta dagoela baldin badakigu, nolakoa izango da memoria nagusiaren egitura: ondoz ondoko moduluak edo tartekatuak? Arrazoitu zure erantzuna, eta azal ezazu memoriaren helbide fisikoaren egitura bitetan.